

**BONAPARTE PRINTZEAREN ERANTZUNA DONOSTIAKO EUSKAL FESTEN
ANTOLATZAILEEI (1879)**

«Jauna: Artu det atsegin askoz Donostiako Bilguma chit noble eta jakintsuaren partetik bidaldu dizkidazun azaldeak eta batezere neretzat balio andia duen paper baten bidez egiten didan gurteska, an euskal-izkuntzaren onean egingo diran festetara joateko; baña pena andi batekin esaten dizut ez dezakedala inolaere joan, nai nukean bezela, jostaguda ain egokia ikustera, eta ematen dizkiot, zure bitartez, esker asko Bilguma errespetagarri orri, nereganaiko duen begirune gogotsuagatik.

»Chit ondo derizkiot festa oriek egitea euskal-izkuntz ederra gorde eta zabaldutzeco lur noble orretan, eta segurutzen dizut nere bizi guztian izango dedala euskal-erriaren oroipena, zeñari opa derizkiotan zorientasunik andienak.

»Jaungoikoak gorde zaitzala urte askoz.

»Londresen, 1879garrengo Aboztuaren 22an— L. L. Bonaparte.»

© BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA

Bonaparteren euskarazko eskuizkribu gehiago, [hemen](#).